

IZENA _____

DATA _____

NIRE LAGUNAK



Nire izena Jon da eta Bizkaiko herri txiki batean bizi naiz, Bermeon, hain zuzen ere. Zortzi urte ditut nire lagunek bezala.

Bermeo oso herri polita da, Itxaso ondoan dago eta jende jatorra bizi da bertan. Nik lagun pilo bat daukat: Ander, Laura, Gorka, Ane, Mikel, Janire, etab. Eskolatik irten ondoren portuan geratzen gara elkarrekin jolasteko. Nire koadrilan bi lagun minak ditut, hauek dira Mikel eta Ander, beti elkarrekin gabiltza olgetan. Goiko argazkian nik jertsei berdea eta praka urdinak daramatzat. Nire ondoan dagoen neskatile Mikelen arreba da, Laura, berak bost urte dauzka eta batzutan gurekin dator jolastera.

Ane neskarik altuena da eta ile gorriska dauka, argazkian atzean kokatuta dago.

GALDERA ZUZENAK

1. Nor naiz ni?

2. Non bizi naiz?

3. Non dago nire herria?

4. Zenbat lagun dut nik?

5. Non geratzen gara eskolatik irten eta gero?

6. Nola deitzen dira nire lagun minak?

7. Zein arropa daramat argazkian?

8. Nola deitzen da nire ondoan dagoen neskatila?

9. Zenbat urte dauka Mikelen arrebak?

10. Nor da neskarik altuena?

BESTE GALDERA BATZUK

- **Non bizi dira Laura eta Ander?**

1. Bilbon
2. Bermeon.
3. Beste herri batetan

- **Zergaitik ibiltzen naiz beti olgetan Mikel eta Anderrekin?**

1. Ez daukalako beste lagunik.
2. Nire lagun minak direlako.
3. Nire amak esaten didalako.

- **Nolako da Laura?**

1. Gu baino altuagoa.
2. Gu baino gazteagoa.
3. Mikel baino nagusiagoa.

- **Nolako da Ane?**

1. Laura baino baxuagoa.
2. Mikel baino altuagoa.
3. Guztiak bezain altua.

- **Nire lagunak eta nik...**

1. Adin berbera daukagu.
2. Ez daukagu adin berbera.
3. bost urte ditugu.

- **Laura....**

1. Mikelen etxean bizi da.
2. Mikelen auzokoa da.
3. Jonekin jolasten du beti.

- **Ile arrubioa eta jantzi gorria daukana...**

1. Ane da.
2. Laura da.
3. Jonen arreba da.

- **Nire lagun guztiak...**

1. Barakaldon bizi dira.
2. Bilbon bizi dira.
3. Herri polit batean bizi dira.

LABURPENA

